

kultur leioako auditoriuma

BABES-NEURRIAK

Zure segurtasuna eta osasuna garrantzitsuena denez, osasun-agintarien jarraibideak betetzeko prestatu dugu Auditoriuma. Emanaldi guztiak babes- eta higiene-neurri zorrotzak aintzat hartuz egingo dira. Hau da jakin behar duzun lehen gauza.

LEKU MUGATUA IKUSKIZUN GUZTIETAN

SALMENTA SOILIK TXARTELDEGIAN

MASKARA

Auditoriumaren barruan, nahitaezkoa da maskara erabiltzea bertara sartzean, emanaldian eta bertatik ateratzean. Ikusle bakoitzak etxetik ekarriko du bere maskara.

ESKUAK DESINFEKTATZEA

Auditoriumera sartzean, derrigorrezkoa izango da eskuak gel hidroalkoholikoz desinfektatzea. Jende guztiak izango du eskuragarri gela, eta komunitan horretarako xaboia ere egongo da.

AUDITORIUMA GARBITZEA

Auditoriuma goitik behera garbitzen eta desinfektatzen da egunero, ikuskizunak hasi aurretik: korridoreak, eserlekuak, eskubandak, bai eta komunak ere.

SEINALEAK

Auditoriumean seinaleak non eta nola jarri antolatu dugu, eta, hala, sarreratik bertatik eta bertako gune guztietan, ibilbideak seinale espezifikoeekin erakusten dira, galtzea saihesteko, pertsonen arteko tartea bermatzeko, eta korridoreetan jendea pilotzea eta elkarrekin gurutzatzea ekiditeko.

IGOGAILUAK

Igogailuak desgaitasunen bat, mugikortasun murriztua dutenek eta haurdun dauden emakumeek erabiltzeko baino ez dira.

ARETOA

Aretoaren edukiera ez da 122 eserleku baino gehiagokoa izango. Urruntze fisikoa bermatzeko, aldeztu aurretik emandako eserlekua, edo bizikidetzataldearenak, alboetan hutsik dauden bi tarteren artean (edo korridore ondoan) egongo da.

BIZIKIDETZA-UNITATEA

Bi pertsonako edo gehiagoko familia- edo bizikidetzataldeei bi eserleku edo gehiago batera erosteko aukera emango zaie. Gogoan izan pandemiaren aurka pertsona guztiok dugun banakako erantzukizuna.

ATEAK IREKITZEA

Emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago irekiko dira Auditoriumeko ateak. Arren eskatzen dugu sartzeko azken unera arte ez itxaroteko, eta behin bertara iritsitakoan, aldeztu aurretik emandako eserlekuetara joateko.

IKUSKIZUNA AMAITUTAKOAN

Emanaldia amaitutakoan, megafoniaz ohartaraziko da mezu baten bidez, irteteko lehentasuna, atetik hurbilen dauden pertsonentzat. Husten hasteko, ilaren hurrenkera hartuko da kontuan; 12, 11, 10... eta horrela hurrenez hurren. Bitartean, ikusleak eserlekuetan zain egongo dira, txanda iritsi arte. Pazientzia izateko arren eskatzen dugu.

EGUNERATZEA

Unean uneko osasun-gomendioen eta -araudiaren bilakae-raren arabera, eguneratu egingo ditugu neurriak eta horien berri behar bezala emango dugu.

Ziur gaude ikuskizunaz gozatzeko soilik joango zarela KULTUR LEIOAKO AUDITORIUMERA, beste ezertaz arduratu beharrik gabe.